

Bideodeia

–Lide! Zer moduz Malaysian?

–Bada, oso ondo, Ugaitz! Ikusten duzu, oraintxe igerilekuan nago. Bero egiten du, eta eguzkia hartzen ari naiz! Zuek Galizian zaudete?

–Bai, Galizian gaude, bai!

–Hondartzan zaude, ezta? Ura hotza al dago?

–Bada, ez dakit. Karabela portugesez asko daude, eta ezin da itsasoan bainatu.

–Hara! Hemen ere ez: itsasoa oso arriskutsua da hondartza hauetan. Eta, orduan, zertan ari zara orain? Eguzkia hartzen ari zara? Kamisetarekin? Marka geratuko zaizu!

–Ez, berberetxoak hartzen ari naiz! Kar-kar!

–Berberetxoak hartzen? Aizu! Galizian ezin da itsaskirik hartu, ezta?

–Ez, Arousan ezin da itsaskirik hartu, baina hemen bai, hemen itsaskiak hartu daitezke! Eta jan ere bai! Zer goxoak! Han badago janari arrarorik?

–Bada, bai! Hemen *durian* fruta jaten dute. Puaj! Oso usain txarra du, eta badakizu zer? Ezin da autobusean sartu!

–Uau!

–A! Eta beste gauza bat ere ezin da egin: ezin da hatz erakuslearekin seinalatu! Oso keinu itsusia da! Hatz lodiarekin seinalatu behar da!

–Kontxo! Eta besoa altxatu daiteke? Nik hemen denbora guztian altxatzen dut besoa: “Beste errazio bat! Olagarroa, mesedez, *pulpo a feira*! Eta muskuiluak!”.

–Kar-kar! Aizu, eta kanpina polita da?

–Bai, oso-oso polita da! Izugarri handia da, eta gaueko animazioa dauka: izugarri dibertigarria da! Oso ondo dago!

–Bada, gure hotela ere bai. Izugarri polita da, eta garbi-garbi dago, baina hondartzak oso zikin daude. Pena da: plastiko asko dago itsasoan!

–Bueno, Lide, kotxean sartu behar dugu. Hitz egingo dugu bihar, bai?

–Ados! Musu bat, Ugaitz!